

Zer esan?

Joxe Azurmendiri buruzko artikulua bat eskatu dizute. Zuk ezetz esaten duzu. Joxe Azurmendi. Hitz handiak dira horiek. Inpostorearen sindromea. Zalantzak. Zer esango duzu zuk? Uf. Keba, keba! Tira, filosofia ikasi duzu lau urtez unibertsitatean, eta master bat egin duzu. A ez, bi, ze bestea ere filosofiaren adarrekoa zen. Eta fakultatean hartu zenituen apunte guztiak buruan bisualizatu dituzu, koadernoko koadro txikidun orrialdeak eta hiru koloretako boligrafoak: data gorritz, izenburuak beltzez, mamia urdinez. Ez duzu gogoan Azurmendi lauzpabost alditan baino gehiagotan idatziko zenuenik. Irakurketen koadernoak etxean gordeta dituzu, baina uste duzu horietan itzulpenak edo gaztelerazko originalak baino ez daudela. Begiratu beharko zenuke, baina, bai zera, has zaitez orain horiei guztiei begira. Esan duzun ezezkoarekin lasai antzean geratu zara.

Audio mezu bat eta animatu zaituzte zure ezezkoa aldatzera. Tira, gradua, masterrak, podcast bat ere egin zenuten filosofiari buruz. Beno, bale. Zerbait esaten asmatuko duzu, akabo ba! Zirriborro bat egiten hasi zarenerako konturatu zara unibertsitatean filosofiari lotutako urteetan irakasle bik baino ez zizuetela aipatu Azurmendi, borondatea militante batekin ekarri zutela haren testuren bat, landu zenutela «azterketan sartuko ez zen» kontzepturen bat. Gizaberetxoa, gogoan duzu zerbait. Letek kantatzen zuen munduan zehar doala giza aberea. Eta aberriari buruzko poemaren bat duzu akorduan. Igual argazkiren bat ere ikusi duzula nonbait. Lorea Agirrek aipatu zuela behin, ez dakizu oso ondo non, ez dakizu oso ondo zergatik, baina entzun zenuela haren izena eta pentsatu zenuela, «a, bai, Zegamakoa». Joxe Azurmendi Katedraren emailen bat jaso izan duzu, Ikusgelako bideoa ikusi zenuen behin, JAKINEN bidez izan dituzu arrastoren batzuk. Mikel Urdangarinen tesi aurkezpenera joan zinen, kidetasunez, eta horixe izan zen Azurmendiren pentsamenduarekin luzeen eta sakonen izan

zenuen hartu-eman. Halaxe, konturatu zara zatika jaso izan duzula Azurmendi, ia kontingenteki, eta hezkuntza sistemako curriculumari baino herrigintzari zor diozula duzun jakintza apurra.

Jakin badakizu transmisioa ez dela ikasgeletako kontu soila, kultur paisaiatik ez ezik hautu propiotik ere baduela zerbait. Jakin badakizu, era berean, ikasgelei ere badagokiela. Curriculum gaurkotu eta kokatu bat behar dugu, euskaran ardaztua; eta, horrekin batera, erreferentziak sortzeko zer joera dugun errebisatu beharrean gaude. Curriculumaren moldaketan ari direnak behar ditugu, baita curriculumari zirrikituak aurkitu eta gaur egungo eztabaidak talaia kokatuetatik begiratzen erakusten digutenak ere. Batzuk eta beste, biba zuek!

Zuk ez dakizu Joxe Azurmendiri buruz zer esan. Buruan duzuna kontzeptu, ideia eta zertzelada solteen collage bat baino ez da. Dakizuna da ‘-txo’ erabiltzen zuen aldiro irakurleari umiltasunerako dei bat egiten diola. Elkarrekintzan kokatzen duela gizakia, eta dialogoan behar direla jarri pentsamenduak. Testu bat idatzi behar duzu eta ez dakizu zer esan. Esan esate hutsagatik egiten duzu sarri zuk ere; hitzontzikerian erori baino, orde, hobe izango da entzuteko kera hartzea. Filoso-fiak zerbait erakutsi badizu, testuak irakurri behar direla da, besteenak irakurri norberaren errota martxan jartzeko. Dialogo bat. Sumatzen duzu, modernitateak ekarritako monismoen kontrario izaki, Joxek ez lukeela gura bere izen-abizenak absolutuki goratu eta jainkotzerik. Besterik gabe, bere testuak irakurri, interpretatu eta gure pentsamenduekin elkarrizketan jartzea nahiko lukeela usna zenezake. Besterik gabe, hori gutxi balitz legez!